

## **76. FITXA. ARABA - Arabako Lurralde Historikoko eta Trebiñuko enklabe udalek eta kuadrillek sustatutako kultura-ekimenak garatzeko dirulaguntzak, 2025**

**Nori zuzenduta:** Arabako Lurralde Historikoko eta Trebiñuko enklabe udalak eta kuadrillak, Gasteizko Udala eta hura parte den kuadrilla izan ezik.

**Sartzeko esteka:** [Dirulaguntzen deialdia, Arabako eta Trebiñuko enklabe udalek eta kuadrillek eurek sustatutako kultura ekimenak gauza ditzaten - egoitza](#)

**Erreferentziako arauak:** [338/2024 Foru Agindua, abenduaren 27koa, Arabako Lurralde Historikoko eta Trebiñuko enklabe udalek eta kuadrillek sustatutako kultura-ekimenak garatzeko dirulaguntzen 2025eko deialdia onartzea](#)

**Eremuak:** Kultura

**Zenbatekoa:** 85.000 €

**Aurkezteko epea:** 2025/01/31

### **Laburpena**

Deialdi honen xedea da dirulaguntzak ematea Arabako Lurralde Historikoko eta Trebiñuko enklabe udalei eta kuadrillei, **2025eko ekitaldian kultura ekimenak gauza ditzaten.**

### **Diruz lagundu daitezkeen jarduketak**

**Kultura sustatzeko programa irekiak** lagundu ahal izango dira diruz, edozein alderditan.

Bi dirulaguntza modalitate ezarri dira:

- 1 modalitatea: diruz lagundu daitezkeen aurrekontua 5.500 eurokoa edo txikiagoa duten kultura-proiektuak.
- 2 modalitatea: diruz lagundu daitezkeen aurrekontua 5.500 eurotik gorakoa eta 20.000 eurotik beherakoa duten kultura-proiektuak.

Entitate eskatzaileek **proiektu bakarra** aurkeztu dezakete, eta bi modalitateetako bat aukeratu behar dute aurkezteko.

## Laguntzen zenbatekoa

Emandako dirulaguntzak ezin izango du gainditu eskatutako zenbatekoa, ez eta diruz lagundu daitekeen programaren aurrekontu osoaren **ehuneko 60** ere, eta entitate eskatzaileak gainerako ehuneko 40a daukala ziurtatu beharko du. 2 modalitatean, horrez gainera, entitate bakoitzeko 7.000 euroko dirulaguntza muga ezartzen da.

Ez dute dirulaguntzarik jasoko balioetsi eta gero **350 eurora** heltzen ez diren eskaerek.